

**ATZEKO-KALEKO MONUMENTUA**

Urtero lez, Atzeko kaleko jaixak be gaiñian dittugula-eta, orain dala berrogeta bost urteko fotografia dakartzuegu gaurkuian. Itturitxoko plazatzuan ikusten dozuen montaje hori etzan Arantzazuko Amaren jaixetarako moldau, egun batzuk lehenago Oñatin ospatu zan Eukaristia-Batzarrerako baiño.

Batzar hori 1956ko agustuaren 29tik agorraren 2ra izan zan eta aitzakixa horrekin makiña bat jente etorri ei zan Oñaitira, Vaticano-ko nuntziua, Donostiako bispua eta gaiñerako agintarixak aurrenengo zirala. Korpuzti eguneko apostoluak be jantzi eta kaleratu ei ziran egun hareittako ospakizunak dotoreketako. Eta Atzeko-kaleko fiesta-komisiñokuak Arantzazu txiki bat montau euen plazuelan, harkaitz, bedar, ota, illar, elorri, ardi, Errodrigotxo, Ama Birjiña eta guzti.

Argazkixan agiri diran danak etziran batzorde horretakuak, baiña asko bai eta gehixenak auzuan bizi ziran. Batzuk urte askuan jai-komisiñuan jardundakuak. Ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue:

Zutik: Juanito Zubia, Kruz Korkostegi, Gregorio Granja, Pedro Igartua, Roxendo Iturmendi, Floren Igartua eta Joxe Odriozola.

Beheko illaran: Bartolo Igartua, Jabier Zabaleta, Hilario Lasagabaster eta Joxe Ugarte.

Eskumako etxiak antzera dagoz: Korkostegitarrena bardin eta hurrenguak, obria egin arren, hor ikusten dogun mirado-re ederra gorde dau. Bestiak, barriz, ezkutau ziran: bai iturri ondoko etxetxua (orduan Itturitxokua izenez ezaguketan gebe-na), bai Arrueneko fabrikia eta etxe-bizitzia. Arantzazu kaleko ezkeraldeko etxia, barriz, hor dago itxura batian, baiña bota eta zihero barriztata.

J. E.

Fotografia Udaleko argazki-fondokua da eta Jabier Arriaranek eskuratu dosku. Argibidiak, ostera, Esperantza Elizondo, Juanita Urzelai eta Nikolas Ugarteren bittartez jakin dittugu.



**KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka, 5 bis.
Tfnoa: 77 09 92
ARRASATE

San Lorenzo, 39
Tfnoa: 78 21 82
OÑATI

**VRZELAI
DENDA**

Kale Barria, 26
OÑATI